

SASKIBALOIA. Foirestek eta Timinskasek Forden jokoa ondo gelditu zuten, batez ere partiduen bigarren erdian

Ezin hobeto eman zion hasiera Tauk final-zortzirenei Peristeri garaituz

Hirugarren laurdenean garaipena bideratu zuen Baskoniak defentsa bikain bati esker

PERISTERI	79
TAU BASKONIA	81

Peristeri: Dinkins (7), Ford (41), Tsartsaris (9), Ribeiro (10), Zvrosenko (6) -hasierako bostekoa-, Pelekanos, Andersen (4), Papadatos, Papamakarios (2)

Tau Baskonia: Elmer Bennett (10), Foirest (11), Stombergas (25), Oberto (18), Alexander (10) -hasierako bostekoa-, Corchiani (2), Timinskas (5), Scola.

Markagailua: 23-26; 45-44 (atsedenean); 58-67; 79-81.

Arbitroak: Lepetic, Reatto eta Jones. Kanporatuak: Peristeritik Pelekano, Baskoniatik Foirest eta Alexander. Pedoulakisi teknika adierazi zioten.

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Tau Baskoniak ezin izan zion hasiera hobeagoa eman Euroligako final-zortzirenetako kanporaketari. Minutu gehienetan lan sendoa eginda, Persiteri garaitu zuen Gasteizko taldeak, azken minutuetan larritasunak izan zituen arren. Baina, segundo estu horietan Stombergas agertu zen, eta hiruko batekin norgehiagoka erabaki zuen.

Atzoko partidua irabazteak, etorkizuna asko argitzen dio Gasteizko taldeari, Zurbaoko pabilioian erabaki baitezake Euroligako lehen kanporaketa. Gauzarik garrantzitsuenak Dusko Ivanovichek entrenatzen dituen jokalariek emandako iru-



Fabricio Oberto, atzo, Michael Andersen aurrean baloia saskiratzen.

dia izan zen; talde bat bezala jokatu zuten Gasteizkoek, eta, horrela jokatu oso zaila da galtzea.

Nolanahi ere, Peristerik talde indartsua dela erakutsi zuen atzokoan. Greziatik esaten ziren gauzak bete zituen Pedoulakisek entrenatzen duen taldeak. Alphonso, Ford taldearen jokalaria erabakigarria da, bai azken segundoetan, bai norgehiagokaren hasieran. Bere taldekideei begiratu gabe saskiratzen du erasoan, inolako lotsarik gabe. Baina, zorionez, Foirestek eta Timinskasek ondo gelditu zuten jokalaria estatubatuarren jokoa azken minutuetan.

Partiduen aurreneko minututik berdintasuna izan zen nagusi Andreas Papandreu pabilioian. Bi taldeek norgehiagokaren ritmoa hartu nahi zuten, eta, aurreneko erdian, Peristerik lortu zuen helburua. Erasoan zailtasun handirik gabe saskiratzen zuten bi taldeek. Dena den, Baskoniak baloi batzuk galtzeak Peristerik markagailuan aurea hartzeko balio izan zuen.

Hirugarren laurdenean, berriz, Baskonia norgehiagoka erabakitzeko asmoarekin kan txaratu zen. Defentsa gogortu —Fordek bakarrik saskiratu zuen—, eta erasoan aukerarik onena bilatzeko lasaitasunez jardun zuten. Horren eskutik hamaika puntuko aldea lortu zuten, partidua erdi-erabakita utziz. Hala ere, azken laurdenean ez zuten ondo mantendu lortutako aldea, eta azken minutuetara oso berdinduta heldu ziren bi taldeak. Hamabost segundo falta zirela Peristeri aurretik zihoan puntu bateko abantailarekin. Baina orduan agertu zen Stombergasen hiruko partidua erabakitzeko.

ZIKLO-KROSA. Bihar iluntzean emango du jakitera UCI-k heldu den denboraldiko Munduko Kopako egutegi ofiziala

Xabier Usabiaga | **DONOSTIA**

Igorretarrak itxaropentsu daude eta albiste onaren bila 11 ordezkari (antolakuntzakoak, Udalekoak eta Foru Aldundikoak) joango dira bihar Taborrera, UCIk heldu den denboraldiko Munduko Kopako egutegia jakitera emango duen bilerara. «Urduri gaude», adierazi dio EGUNKARIARI Arratiako Ziklista Elkarteko Jon Osa igorretarrak. «Urteak eman ditugu Munduko Txapelketa antolatu nahian eta eskaera guztiak baztertu egin ditu UCIk, oraingoan, baina, baiezkua entzungo dugulakoan gaude».

UCIk erabakia du, jada, datorren denboraldiko egutegia, eta

Igorrek Munduko Kopako proba bat antola dezake 2001-2002 denboraldian

baita Munduko Kopako sei probak non eta noiz jokatu diren ere. Ordea, oraindik inork ez du horren berririk. Egutegia erabakitzeko bilera abenduaren 18an egin zen eta geroztik finkatua dago egutegia, eta igorretarrek dakiten kontu bakarra da, proba antolatzea egokitzen bazaie abenduaren bian antolatu beharko luketela, ohiko eguna baino astebete lehenago.

Arratiako Ziklista Elkartearentzat ez da berria Munduko Kopa antolatzea. 1993tik 1995era Munduko Koparako baliagarria izan zen Igorreko

lasterketa eta bertan ibili izan ziren Munduko espezialistak onenak. «Munduko Kopako arauak dio», azaldu du Jon Osa, «hiru urtez jarraian baino gehiagotan ezin dela antolatu Munduko Kopako probarik, eta guk epe hura bete ostean Munduko Txapelketa antolatu nahi izan genuen, baina ezezkoa jaso genuen behin eta berrir». Eskarmentu faltarik ez dute, hortaz, igorretarrek ziklo-kros probak antolatzen eta erronka berriari ere ez diote beldurrik. «Zailtasunak zailtasun, azken urteetan ere maila oneko pro-

bak antolatu ditugula uste dut, partaidetza ona izan baita beti Igorren, eta Munduko Kopa izateak ez gaitu beldurtzen», adierazi du Jon Osa.

Edozein moduz eta igararpenak onak izan arren, badaezpada zuhur jokatu nahi dute Arratiako Ziklista Elkarteko kideek, aurreko urtean ere Munduko Txapelketa antolatuko zutelakoan baitzeuden eta azken orduan, Maastrichen (Holanda) ezezkoa eman zieten Taborren (Txekiar Errepublika) mesedetan. Aurreko baiezkorekin bila joango dira.



Daniele Pontoni, Igorren.